

EZKIO-ITSASO / Irakurmena bultzatzeko, herritarrentzat liburu eskaintza berezi bat antolatu du liburutegiko arduradunak

EZKIO-ITSASO. DV. Ezkio-Itasoko Udal Liburutegiak bertan dauden liburuen aukeraketa txiki bat egin eta liburuxka bat osatu du, hau herritarren artean banatuz. Iniziatiba honekin, herrian irakurmena bultzatu nahi da.

Aukeraketa honen barruan, umeei zuzendutako 22 liburu daude, 14 gazteentzat eta 17 helduentzat. Liburu asko ditugu, 9.000 baino gehiago, eta hauen artean izenburu batzuk aukeratu ditugu hauek duten erakargarritasunagatik edo idazlearen izenagatik. Honekin, jendea irakurtzeko animatu nahi dugu, dio Miren Iturraldek, liburutegiko arduradunak.

Askotan liburutegia umeak noiz behinka eramateko erabiltzen da, hemen arratsaldea igaro dezaten, baino hori baino askoz gehiago da. Adin guztientzako liburuak aurki ditzakegu herriko udal liburutegian: nobelak, historiako liburuak, arte ederretakoak, musika edo arte cd eta dvd batzuk ere... Eskaintza zabala du, dauden liburuen gehienak euskaraz direlarik.

Beharbada gaztelerazko liburuen falta nabaritzen da batzuetan. Umeak txikiak direnean euskaraz irakurtzen dute, baina 9-10 urtetik aurrera erderazko liburuak esakatzen dituzte, dio Mirenek.

Hori konpontzeko eta behar edo jendeak eskatzen dituen bestelako liburuak lortzeko, Ezkio-Itsasoko Udalarekin akordio batera heldu dira aurten. Honekin, lau hilabetero liburu berriak erosteko aukera egongo da herrian. Liburu eskaintza batzuk jaso ditugu dagoeneko, baina oraindik norbaitek liburu bat ekartzea nahi baldin badu, liburutegira etorri eta bertan proposamena egiteko aukera dauka, azaldu du Iturraldek.

Bestalde, orain arte, umeak eskolan behar zuten liburu bat erosten zutenean, hau irakurri eta liburutegira eramaten zuten, dirua bueltatu eta betirako bertan uzteko. Horrela hurrengo urteko umeek ez zuten liburu hau erosi behar. Honek horrela izaten jarraitzen du, orain ere, baina esan bezala, liburu, cd edo dvd berriak erosteko aukera izango du hemendik aurrera liburutegiak.

Momentu honetan 59 bazkide ditu udal liburutegiak, orain dela hilabete batzuk egiten hasi ziren karneta berriekin. Karneta dohainik lortzen da eta honekin Ezkio-Itsasoko liburutegian eta beste askotan dauden materialak etxera eramateko aukera duzu. Hau lortzeko egin behar den gauza bakarra liburutegira hurbiltzea da.

Ekintzak

Liburutegian irakurri eta irakurmena bultzatzeaz gain, Miren Iturraldek ekintza desberdinak antolatzeke gogoazuen ere.

Horregatik, apirilaren 21era liburuaren egunaren ospakizuna aurreratuko dute, eta hau ospatzeko Maite Francoren emanaldi bat egongo da.

San Juan eguna aldera, berriz, txotxongilo edo antzeko ekitaldi bat prestatzen saiatzen ari da ere, eta urte bukaeran gurasoekin ekitalditxo bat antolatzeke aukera polita ikusten du, beraien semeentzat zein inportantea den gurasoek irakurtzea azaltzeko, umeak nola estimulatu...